


INFLAZIOA

KPIaren aldakuntza tasa bikoiztu zen maiatzean

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




Kontsumoko prezioak puntu bat igo ziren maiatzean aurreko hilekoaren aldean, petrolio gordinaren garestitzeagatik. Horren ondorioz, KPIaren aldakuntza tasa %2,0an kokatu zen, azken urtebetean izan duen mailarik altuena baita. Beraz, hileko horretan inflazioak EBZren helburua bete zuen, baina petrolioaren merkatua normaldu ondoren prezioak berriro apalduko direla aurreikusten da.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	2,0	2,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,5	0,2
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	5,7	1,0
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	3,4	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	7,5	0,8

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Aipatua izan denez, gorakada horren erantzule nagusia petrolioaren garestitzea izan da, upelaren prezioa 80 dolarretara hurbildu zelako. Horren ondorioz, erregaien taldea %8,8 garestitu zen, indize orokorrean puntu erdi bateko eragina utziz. Halere, ondasun horien eragina kentzen denean, lortzen den indizea oraindik maila neurritsuan dago, %1,5eko igoera batekin, nahiz eta bizkortzeko zantzuak erakutsi dituen. Erregaien garestitzeak bereziki garraioan du eragina, azken hamabi hilekoetan %4,8ko igoera izan baitu, aurreko hilekoko emaitza ia hiru puntu goraraziz. Erregaeiaz gain, argindarra ere prezioen gorakadaren erantzulea izan zen. Beraz, bigarren talde inflaziogileena etxebizitza izan zen (%2,5).

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko maiatz

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,0	2,1	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,1	2,0	2,1
Edari alkoholduak eta tabakoa	2,4	2,1	4,2
Jantziak eta oinetakoak	1,4	1,0	0,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,5	2,3	2,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,6	0,1	0,3
Medikuntza	0,1	0,2	0,8
Garraioa	4,8	5,1	3,8
Komunikazioak	2,5	2,4	-0,6
Aisia eta kultura	0,8	0,8	1,6
Hezkuntza	1,0	0,7	-2,0
Jatetxeak eta hotelak	1,8	2,0	2,2
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,5	0,9	1,3

Iturria: INE eta Eurostat.